

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure produktua, labur esanda, erosketak egiteko karritu konbentzionalaren eraldaketa bat da. Jakina da gero eta elbarri gehiagok hainbat zailtasun dituztela euren zereginak gauzatzeko, eta are gehiago erosketak egiterako orduan, dituzten laguntzak oso eskasak dira. Hainbatetan proposatutako eta aplikatzen saiatutako laguntzek ez dute eragin nahikoa izan, eta garatu zein garatzeko bidean geratu dira. Arazo hau askatzeko modurik egokiena proposatzen saiatu gara. Beraz, lehen esan dugun bezala, gure asmoa elbarriek eskuraezinak dituzten produktuak eskuratzeko aukira egokitzen den karritu bat sortzea da.

Honek tamaina txikiagoa du, gurpildun aukira egokitzea ahalbidetzen dion iman batez lagunduta. Izan ere iman hori, gurpildun aukiak aurrealdean dituzten gurpil txikiak eusteko metalari itsatsi egiten da.



Karrituari dagokionez, honek pintxa mekaniko bat dauka, zeinak eskuraezinak dituzten produktuak hartzeko aukera ematen dien. Pintxa honek bi atal ditu: Lehenengoa, pertsonaren eskuetatik gertuen dagoena Stick-a da, hots, pintxa kontrolatzeko balio duena. Bigarrena, berez, pintxa da, produktuak hartu eta karrituan uzten dituen, eta hau karrituaren albo batean egongo da.



Baina, hala ere, proposamen hau azaltzean sortutako galdera nagusia diruaren arazoa izan daiteke, aurrerago azalduko dizueguna. Aurrera diezazuekegu kostua ez dela oso altua izango, hainbat aliantza baititugu. Gure proiektua, batez ere, elbarria den edozein adineko pertsonentzat zuzenduta dago. Karritua besteak bezain segurua eta eraginkorra izango da. Izan ere, erabiltzerakoan, arina izateaz gainera indartsua eta finkoa izango da.